

1 EGUNON

Musika: Asier Gazategi, Iñigo Gokoetxea • Hitzak: Jon Maia

Suak urari muxuak
ematen zizkion atalaitan,
baina maitasun urruna,
dena da lurruna
su ezpainetan.

Gaua zabala ta laua
argi izpi bat da
gogoen zubi.
Goian hilaren argia
zaindari bakarra,
gauean zuri.

EGUNON, HAU EGUN EDERRA,
EURIA ARI DU, BAINA EDERRA DA.
PLAZETAN PUTZUTIK PUTZURA
SALTOKA DOAZEN ERO BATZUK GARA.

Mendi guztietan gaindi
doa oihu baten ahartzunean
azken kanta baten hitza
entzun gabekoa behar zenean.

Kanta suari txinparta
piztuko bazaito kanta neguan,
hura malkoen modura
zerutik lurrera datorrenean.



2 KALANBREAK

Musika: Asier Gazategi, Iñigo Gokoetxea • Hitzak: Asier Gazategi

Astelehena biharamun,
ezinez lehortzear nago,
sabeleko kalanbreak,
ezin dut gehiago.

Ta zer ondo pasatu nun,
hura gaua atzokoa,
denbora luze batean
gogoratzekoa.

Ikasketak ahaztu ditut,
neskak utzi nauela ta,
ferra on bat botatzeko
aitzakirik ez nun falta;
zazpi egunetatik behin
izaten da larunbata.

Formal ibiltzen naiz, baina
begira gauzak zer diran,
hogeita bi garagardo
ta lau gin-tonic segidan,
azkeneko Coca-Colak
kalte egin ote zidan.

Astelehena biharamun,
ezinez lehortzear nago,
asteburuetan badakizu,
etxean gelditu.

Ta zer ondo pasatu nun,
hura gaua atzokoa
nire partetik gorantziak
buruko minari.

Goizeko bostak ezkerro,
ez dut ezer gogoratzen,
balantzaren urratsetan
zapatarik gabe nintzen,
eskerrak nire galtzetan
ez zan txanponik gelditzen.

Hurrengoan emango dut
gizon zintzoaren planta,
berandu baino lehenago
egin beharko dut hanka,
hurrengoan izango da,
honek bueltarik ez dauka.

Astelehena biharamun...
Parranda zale naizela,
pasatzen naizela
pentsatzen dut maiz,
aukera sortzen den heinean,
berriz juergara joango naiz.

Astelehena biharamun...

3 NIREKIN

Musika: Asier Gozategi, Iñigo Goikoetxea · Hitzak: Jon Maia

Emoixtaxux muxutxuek,
mailie,
hartuixu guruxun
guztixe,
eroaixu bixotz
tristie,
zure bixotzarekin.

Emostazu porrutxue,
sorgine,
ahetetu baten
berdine,
begitxu gorrixen
samiñe
sendatuixu nirekin.

Oinak hotz gabien berbak irratixen,
bero pixka bat gure neuke,
berbaixu bajutxu, eskue helduixu,
ez utzi laztanik eteke.

Gero esnatzien lagaixu etzien
zure marrubi usaintxue
ta ez eixu pentsa ez dela erreza
gauza politxek pentsatzie.



4 NORKI

Musika: Asier Gozategi, Iñigo Goikoetxea

5 PAKIA BEYAU

Musika: Asier Gozategi, Iñigo Goikoetxea · Hitzak: Asier Gozategi · Sarrera: Tabaski Diop

Nelson Mandela
kartzelan zela,
zenbat negar, zenbat asti, zenbat urte,
orain zaindari
beroiek beroien bihurtu dute,
bera gidari
aintzakotzat hartu izan balute.
Reggae, punk, ska ta fandango,
pakea joko z kanpo dago.

Alkate, pakete, alkakahuete,
zaindari, kantari, lendakakari
polizi, zorritsu, txanogorritxu,
ministro, ze kristo, ministro fistro.
Histori, kontari, parlamentari,
begira, mendira, parlamentira.
Pepitok, zer dio, Pelipitori,
Galindo, Galindo, gatito lindo.

Elkar irentsi gabe ta
elkarri lotuta,
hitzak tokirik ez du
behin mingaina kenduta.
Euskal Herri euskaldun bat
zazpiak batuta,
lortuko dugu baina
danok alkartuta.



6 NOR NORI NORK

Musika: J. Solano, A. Rodriguez, J. A. Ochaíta, Asier Gozategi, Iñigo Goikoetxea · Hitzak: Otxandioko AEK

Eusko Jaurlaritzak dio dirurik ez dagoela,
baina zer kasualitate gurea falta zaiela.

Baina, laster ikusiko dute, joder,
potrotaraino gaudela, joder, potrotaraino gaude.

Nor-nori-nork, baldintza ta subjuntibo, joder,
baldintza ta subjuntibo, joder,
baldintza badakigu.

Ertzainek erosi dute kriston helikopterua
baina zertako nahi dute holako aparatua.

Baina, laster ikusiko dute, joder
potrotaraino gaudela, joder, potrotaraino gaude.



GOZATEGI

7 DON JOSE

Musika: Asier Gozategi, Iñigo Goikoetxea · Hitzak: Asier Gozategi

Jose Jimenez Sanchez Rodriguez
Aizarnazabalekua,
belar biltzeko sarderik ere
ez dagoleln baserrikua,
hiru polboroi ogi tartean
baino lehorragokua;
ho!rri euskalduna baldin badegu
inor ez da kanpokua.

Intxaurrak eta gaztainak jaten
Josek badu adorea,
ardi gazta ere gustatzen zaio,
menbriloduna hobea
babarrun gorri, odolki ta aza,
piper gorri ta berdea,
gindila eta pepiniloa
nahiago ditu ordea.

Gure figura karta jokoan
enbido eta ordago,
kerik gabeko Winston Churchill bat
hortza artean esklabo,
azala beltza, patilak luze
ta sudurra luzeago,
euria edo harria egin,
zigarroatu salbo dago.



8 · PORRU-PATATA

Musika eta hitzak: Asier Gozategi
Ahotsa: Joxe Mari Agirrexe "Porraitx"

Santurtxinda txindatorren artista bat naiz ni.

Ondo jotxen det,
baita nik ere.

Ni golpe nik jotxen det,
pe pe pe, pe pe pe...

Nire kolegi

Jaimito da ta,
nire partido

Porru-Patata,

Jaurlearitxan behin botatu

sin keriendo konturatu

ta tranpetan harrapatu.

Aireportuan

zizenak dantzan,

hegazkinak

zizen plazan,

esperantzarekin baina

ez balantzarekin adinalaño!

ta Marianok Lurrajoik.

Akordeioa nik jotzen dot

DO menor eta DO mayor

Orejarekin entxungo

Gozategi kalejiran

ta Sevillan Jiraladilla

ipurdiko pelotilla,

Zapatero zapatilla,

Guardia Zibilla.

9 · UDAKO EGUNAK

Musika eta hitzak: Asier Gozategi
Bibolita: Fran Lasuen / Korroak: Orioko Salatxo otzolea

Udako egun haietan
gertatutako guztia,
kanpoan haize lehorra
gugan maitasun bustia.

Opari batekin nator
eta ea ba maitia,
gustatzen zaizun zureztat
egindako abestia.

AMETSEN ERDIAN

JOLAS EGINAZ GAUERDIAN,

HORREN GUSTORA EGOTEKO

ALKARRI DENA EMATEAN.

AMETSEN ERDIAN

JOLAS EGINAZ GAUERDIAN

SENTIARAZTEN DIDAZUN HURA

ZURI ESATEAN.

Begirada bat nahikoa
izaten zen gehienetan,
kilimak eta zirrarak
dantzan hasten zirenetan.

Unerik ederretenan
ezin hobeto benetan,
pozaz txoratzen orduan,
orduz gerotzik penetan.

10 · ALBOKA ROCKA JOKA

Musika: Asier Gozategi, Iñigo Goikoetxea

11 · DANTZALEKUAN

Musika: Asier Gozategi, Iñigo Goikoetxea · Hitzak: Asier Gozategi

Larunbateko parranda uste gabe luzatu zan igande eguardiraino,
egarriak geundela ta zerbeza ta kalimotxoz jarri ginen leporaino,
umore ederra gendun, aurpegi alaiagoa astelehen goizean baina,
geroztikan hiru egun pasa diren arren ezin zuzendu gabiltz oraino.

Dantzalekuan geundela neska gazte kuadrilla bat ez zegon oso aparte,
iji-aja lasai geunden neska batek begiratuta keinu egin zigun arte,
lagun batek esan zidan: zuri egin dizu eta beregana juan zaite,
inguratu nitzan baina aguro esan zizkidan kaixo eta gero arte.

Harekin jai neukala ta beste bat topatu nuen rubia eta altua,
dantza bat eskaini zidan, hari uko nola egin, aprobeitua momentua,
heldu orduko laztanak, igurtzi eta muxuak, non egin dut pekatua,
muxutikan ezin pasa, ondo ikasia zeukan seigarren mandamentua.

Bi kalabaza jasota soinean neukana hiru, ia nengoen nekatua,
gurekin kontatu gabe nork aldatu ote duen ligatzeko sekretua,
krisiaren eragina honetaraino heldu da, jaungoiko bedeinkatua,
zalantzan jarria nengon dantzalekua ote zan edo monjen konbentua.

Krisiaren eragina honetaraino heldu da, jaungoiko bedeinkatua,
zalantzan jarria nengon dantzalekua ote zan edo monjen konbentua.
Gustura ari naiz baina gehiegi luzatu gabe bukatuko dut kantua.

12 GOGORATZEN

Musika: Asier Gozategi · Hitzak: Asier Gozategi, Inaki Gurrutxaga

Gogoratzen?
Elizaren atzen
zu ta ni trakatra
trakatra flipatzen,
alkar arakutzen
ta korapilatzen.
Nolako lanak askatzen.

Gogoratzen?
Auzo aberatsen
motorrak baino ere
gehiago berotzen.
Biok amorratzen,
ez ginen banatzen.
Ez al zera gogoratzen?

Larogeita hamarren bueltan
gazte ginenak,
manifen belaunaldi
militanteenak.
Herrigintzaren ikur,
ikurren herri batean,
ezkertiar abertzale,
beti pankartapean.

Bi mila ta hamarren
lehen gazte ginenak,
hipotekak jan ditu
ideal gehienak.
Izandakoaz arro,
ahoetan hitzak gainez,
ezkertiar abertzale,
lehen bai baina orain ez.

Nik zurekin
egon nahi nuen baina,
zuk nirekin ez.

Gogoratzen...

Zenbat aldatu diren
gauzak kamarada.
Iaz heldu nintzen ni
Venezuelara.
Denbora ihesean,
beti besteen etxean
ta zu aurtan sartu zara
Eusko Jaurilaritzara.

Aurpegiz aldatu dezu
albeit arinen,
erradikala zena
funtzionari finen.
Guztiak du ordaina,
ukatu gaituzu baina,
zuk nahi ez baduzu ere
gutarikoa zinen.

Nik zurekin
egon nahi nuen baina,
zuk nirekin ez.
Nik zurekin
egin nahi nuen baina,
zuk nirekin ez.

Gogoratzen...

13 KORRIKA

Musika: Asier Gozategi, Inigo Gaikoetxea · Hitzak: Andoni Egoña

Bat, bi, hiru, lau, bost, sei,
zortzi, bederatzi, hamar,
Euskal Herria korrika.

Arantzazu izan da gordeleku gotor,
euskal hots eta izen babesleku jator,
txori ezin zen eta izan ginen sator,
izkutua uzteko garaia badator.

Hizkiak izkututik
badatoz argira
"K" bi hanka luzekin
korrika hasi da.
Oñatin pasa da "O"
jira eta jira,
"R" ere hedatu zaigu Euskal Herrira.

"R" hor ibili da
euskal herrietan,
"I" tximinia dugu
labe garaietan.
"K" azkenik sartu da
Bilboko kaletan,
"A" ikasten hasi da
non eta AEKn.

Senak agindu zigun
zenari euslea,
baina izkututzea
ez al da tristea?
Nahi badegu euskara
igotzen hastea,
komeni da Korrika
Bilbora jeistea.

Bat, bi, hiru, lau, bost, sei,
zortzi, bederatzi, hamar,
Euskal Herria korrika.



GOZATEGI